

GAZTEEN OSOKO BILKURA – “DEMOGAZTE” PROGRAMA BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARIAREN SARRERA HITZALDIA

EIDER MENDOZA: “DEMOKRAZIA IKASI EGITEN DA”

Egun on eta ongietorri Batzar Nagusietara Lauaizeta, Lizardi, Herrikide eta Urretxu-Zumarragako ikasle eta irakasleok.
Diputatu nagusi, batzarkideok, egun on.

Lehen aldia da zuentzat Batzar Nagusietan Osoko Bilkura bat egitea, eta guretzat ere berria da: aurreneko aldiz egingo dugu saio hau, Foru Aldundiarekin elkarlanean, kultura politiko demokratikoaren ikasketa bat Batzar Nagusietan Osoko Bilkura eginez amaitzea.

Ez dakigu egunen batean gipuzkoarren ordezkari izango zareten zuetako batzuk, ez dakit politikaz hitz egiten duzuen... baina ziur dakigu zuei ere dagozkizuen erabakiak hartzen ditugula hemen, gipuzkoarren herri-ordezkaritza baitago egoitza honetan.

Demokrazia, erakundeak eta parte hartzea landu dituzue. Oso garrantzitsua da demokraziaren subjektu izango zareten honetan, boto bakoitzaren garrantziaz jabetzea, boto bakoitzak daukan indarrak. Benetako demokrazian,

- botoa indar baketsua delako, indarkeriaren ukapena
- herritarron boterea delako, erakunde politikoak zilegi egiteko
- botoa emateak erabakitzeak askatasuna eskatzen duelako
- hitza betetzea eta betearaztea agintzen duelako
- eta ideologia eta pentsaera anitzeko gizon-emakumeak elkarrekin bakean bizitzeko bidea ematen duelako demokraziak

Baina, demokrazia ez da egun bateko lana. Demokrazia eguneroko borroka da. Errazagoa da demokrazia esatea demokrazia egitea baino. Bat ez da demokrata jaiotzen, demokrazia ikasi egiten da, eta demokrazia ikasteko eskola bakarra dago: giza eskubideak, askatasuna eta bakea zaintzea eta sendotzea, elkarrizketaren bidez, eta herriari entzunez.

Entzutea azpimarratu nahi dut: hitz egiten ohituta gaude politikan. Baina zentzuz hitz egiteko beharrezkoa da entzutea, herriari entzutea, errealitatea ezagutzeko. Errealitatea ikusten ez duen politikoa eta politika gaizki ibiliko dira, eta herria ere bai. Beti entzun behar zaio herriari, herritarrei. Entzun bai, baina zentzu kritikoz.

Erne, gazteak: gaur egun dabilen azpilan handia kontuan izanda, bereziki sare sozialetan –zuek hainbeste erabiltzen dituzuen bitarteko horietan–. Badakizue pertsonen mozorrotutako “botak” dabiltzala, “errobotak”, milaka eta milioika, gezurra barra-barra zabaltzen eta jendea nahasten, erakundeak ahultzen eta demokrazia hondatzen. Burua, bihotza eta zentzu guztiak argi ibiltzeko garaiak ditugu. Erabaki libre eta demokratikoa ez diezagutela lapurtu auskalo ze indarrek.

Seguru asko urduri egongo zarete. Ez da seinale txarra. Axolagabeak izango bazinete, lasai egongo zineten hor. Demokrazia-saio hau aintzat hartzen duzuelako zaudete urduri, hau ez delako antzerkia. Ikusten duzue, ezta? Politika ez da arduragabeentzat ezta zirko zaleentzat.

Migrazioaz hitz egingo diguzue eta bozkatuko duzue. Ondo gaurkoa, gai hau. Demokrazia neurtzen duena, giza eskubideak jokatzen direlako migrazio-politikan.

Aurrera bada. Zuen da hitza. Gu entzuteko prest gaude. Eta ikasteko ere bai.

Donostia, 2019-01-30
Eider Mendoza Larrañaga
Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea

